

Abian Garapenerako Lankidetzarako Laguntzen deialdi berria

- **Deialdiak Garapen Iraunkorreko Helburuekin bat datozen proiektuak bilatzen ditu**
- **Proiektuak aurkezteko epea 2024ko urriaren 1etik 28rarte egongo da zabalik**

Donostia, 2024ko irailaren 30a. Kutxa Fundazioak, Denon Artean Denetik (DAD), Kutxabankeko Langileen Elkarteak, eta Jubikutxa, Kutxako Erretiratuen eta Pentsiodunen Elkartearekin lankidetzan, abiarazi du 2024ko Garapenerako Lankidetzarako Laguntzen deialdia.

Garapenerako Lankidetzarako Laguntzen helburua Hego Globaleko herrialdeetan garapena sustatzen duten proiektuak bultzatzea da, egoera ahulenean dauden komunitateen ongizateari modu esanguratsuan lagunduz.

Laguntza deialdi honek Gipuzkoan egoitza edo ordezkaritza duten erakundeei laguntzea du helburu. Zehazki, hainbat arlotan Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GJH) bat datozen proposamenak aurkeztu beharko dituzte pobrezia, osasuna, hezkuntza, genero-berdintasuna, garapen ekonomikoa eta jasangarria bezalako arloetan, besteak beste. Proiektu horiek tokiko erakunde bazkide batekin lankidetzan ezarri beharko dira herrialde hartzaileetan.

Deialdi honetara bideratutako funtsak DADeko eta Jubikutxako bazkideen ekarpenetatik datoz, eta Kutxa Fundazioak berdindu egiten ditu, eraldaketa sozialarekiko eta guztion ondasunarekiko konpromisoa sendotuz.

“Ekimen honek Kutxa Fundazioak mugimendu sozialekiko eta pobrezia-aren aurkako borrokarekiko daukan sentsibilitatea islatzen du, genero-berdintasuna, giza eskubideak eta iraunkortasuna bultzatuz”, adierazi du Garbiñe Etxezarretak, Garapenerako Lankidetzarako Laguntzen arduradunak.

Proiektuak aurkezteko epea **2024ko urriaren 1ean** hasiko da eta **2024ko urriaren 28an** itxiko da. Proposamen guztiak Kutxa Fundazioaren deialdien atariaren bidez bidali beharko dira, eta hautatutako proiektuak 2024ko abenduaren 2an iragarriko dira.

‘Konpromisoa bultzatuz’ lan-ildoaren baitako laguntzak

Kutxa Fundazioak ekainaren 11an aurkeztu zuen azken urteetan landu duen bere 2024-2030 Plan Estrategiko berria, etorkizun iraunkor eta zuzena eraikitzeko erronkari helduz.

Helburu hori lortzeko, lau jarduera-lerro eraiki edo sortu dira, erakundeekin eta gizartearekin partekatuta daudenak: *Gaitasunak piztuz*, *Ezagutza biziz*, *Konpromisoa bultzatuz* eta *Aukerak irekiz*. Garapenerako Lankidetzarako Laguntzak hirugarren blokearen barruan kokatzen dira, ‘Aztarna Ekosoziala’ programaren baitan hain zuzen ere.

Programak gizarte- eta ingurumen-erakundeen kudeaketa eta ikuspegi estrategikoa hobetzea du helburu, beraien eraldaketa-lan nekazina ikusaraziz, berrikuntza-gaitasuna indartuz eta eraldaketa digitalean lagunduz.

Laguntzen inguruko oinarriak eta informazio gehiago: www.kutxafundazioa.eus